# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Oposaketak eta lehiaketak

### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 5054

*AGINDUA, 2022ko azaroaren 17koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko prozesuak iragartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetarako.*

Gobernu Kontseiluaren 2019ko abenduaren 17ko eta 2022ko maiatzaren 24ko erabakien bidez onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lan-kontratudunen 2019. eta 2022. urteetarako enplegu publikoaren pskaintzak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko irailaren 8ko Aginduaren bidez onartu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetako enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak, eta, 1.2 oinarrian xedatuta dago ezen deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoen bidez arautuko direla hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunak eta, halaber, zehaztuta dago zer eduki izan behar duten oinarriok, hau hain zuzen: zenbat plazatarako deialdia egingo den, nola banatuko diren hizkuntza-eskakizunen eta sarbide-modalitatearen arabera, zer epetan aurkeztu ahal izango diren eskabideak, zenbatekoa izango den inskribatze-tasa langileak hautatzeko deialdietan, zer titulu beharko den sartzeko, zer merezimendu baloratuko diren eta zer baremo baliatuko den, zer data izango den erreferentzia euskara-ezagutzak egiaztatzeko, zer betekizun espezifiko izango duten deialdiko lanpostuek, zein izango diren gai espezifikoak enplegua finkatzeko prozesu berezietan, eta emakumeen lehentasunaren klausula aplikatuko den ala ez.

Agindu honen bidez, enplegua finkatzeko prozesu berezietarako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetarako deialdia egin eta oinarri espezifikoak onartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetarako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo eta bigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera, aintzat hartuta Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoa eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen II. tituluko IV. kapituluan langileen hautaketaz xedatutakoa, eta bat etorriz lege horrek 6.1.i) artikuluan emandako eskudantziekin eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.3.f) artikuluan ezarritakoarekin, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Enplegua finkatzeko prozesu berezietarako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetarako deialdia egitea, plaza kopurua eta lanpostu bakoitzari dagokion eranskina adierazita, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostu hauetarako:

| Lanpostua | Prozesu-mota | Lanpostuak, guztira | Eranskina |
|---|---|---|---|
| Kontserbatzailea | Finkatzeko salbuespenezkoa | 1 | I.a |
| Laborategiko laguntzailea | Finkatzeko salbuespenezkoa | 1 | II.a |
| Kaizainburua | Finkatzeko berezia | 1 | III.a |
| Kaizainburua | Finkatzeko salbuespenezkoa | 1 | IV.a |
| Kaizaina | Finkatzeko salbuespenezkoa | 2 | V.a |
| Mekanikaria | Finkatzeko salbuespenezkoa | 3 | VI.a |
| Mekanikari gainbegiralea | Finkatzeko berezia | 1 | VII.a |
| Mekanikari gainbegiralea | Finkatzeko salbuespenezkoa | 1 | VIII.a |
| Medikua (Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia) | Finkatzeko salbuespenezkoa | 1 | IX |
| Praktiketako monitorea | Finkatzeko salbuespenezkoa | 1 | X.a |
| Peritu judiziala | Finkatzeko berezia | 1 | XI.a |
| Peritu judiziala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 3 | XII.a |
| EJko administrazioko korporazio-sarea kudeatu eta mantentzeko arduraduna | Finkatzeko salbuespenezkoa | 1 | XIII.a |
| Mantentze-lanetako arduraduna | Finkatzeko salbuespenezkoa | 2 | XIV.a |
| Histopatologiako teknikaria | Finkatzeko salbuespenezkoa | 4 | XV.a |
| Laborategiko teknikaria | Finkatzeko salbuespenezkoa | 3 | XVI.a |
| Laborategiko teknikari fakultatiboa | Finkatzeko salbuespenezkoa | 2 | XVII.a |
| Mantentze-lanetako teknikaria | Finkatzeko berezia | 5 | XVIII.a |
| Mantentze-lanetako teknikaria | Finkatzeko salbuespenezkoa | 8 | XIX.a |
| Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langilea | Finkatzeko berezia | 1 | XX.a |
| Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langilea | Finkatzeko salbuespenezkoa | 9 | XXI.a |
| Ibaiondo heziketa-zentroko gizarte-langilea | Finkatzeko salbuespenezkoa | 1 | XXII.a |
| Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako hezitzailea | Finkatzeko salbuespenezkoa | 3 | XXIII.a |
| Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako psikologoa | Finkatzeko salbuespenezkoa | 16 | XXIV.a |
| Ibaiondo heziketa-zentroko psikologoa | Finkatzeko salbuespenezkoa | 1 | XXV.a |
| Ibaiondo heziketa-zentroko koordinatzailea | Finkatzeko berezia | 1 | XXVI.a |
| Ibaiondo heziketa-zentroko koordinatzailea | Finkatzeko salbuespenezkoa | 1 | XXVII.a |

Agindu honen bidez iragartzen diren hautaketa-prozesuak egiteko, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko irailaren 8ko Agindura joko da, agindu horren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Bigarren artikulua.– Onartzea agindu honen I. eranskinetik XXVII.era bitarteko eranskinetan adierazitako oinarri espezifikoak.

Hirugarren artikulua.– Epe hau ezartzea eskabideak aurkezteko: 2022ko azaroaren 24tik 2022ko abenduaren 23ko 14:00etara.

Laugarren artikulua.– Ezartzea euskara-ezagutzek 2023ko abuztuaren 1a baino lehenago egon behar dutela egiaztatuta.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorriz, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 17a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

# I. ERANSKINA

## KONTSERBATZAILEEN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Kontserbatzaile lanpostu 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 1. hizkuntza eskakizuna nahitaezkoa duela.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plaza eskuratu nahi dutenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 7,82 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, eskola-ziurtagiria eskatzen da kontserbatzaile lanpostuan sartzeko.

3.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira Mendekoen Kidegoko edo Laguntzako Langileen Talde Profesionaleko edo kontserbatzailearen E taldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, zerbitzuok funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko kontserbatzailearen lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 25 puntu lor daitezke):

c.1) Tituluak, gehienez 20 puntu.

10 puntu titulu hauetako bakoitzeko: Barnealde, Dekorazio eta Birgaitze Obretako teknikaria, Eraikuntzako teknikaria, Mantentze Elektromekanikoko teknikaria, Beroa Sortzeko Instalazioetako teknikaria, Hozteko eta Girotzeko Instalazioetako teknikaria, Instalazio Elektriko eta Automatikoetako teknikaria, Telekomunikazio Instalazioetako teknikaria.

Era berean balioetsiko dira baliokide diren tituluak. Zein diren jakiteko, jo Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunera (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

c.2) Gehienez 20 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Mendekoen Kidegoko lan-kontratudun finko edo karrerako funtzionario izateko 2000. urteaz geroztik (urte hori barne) egin diren hautaprobak gaindituta izateagatik:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 20 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 15 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 15 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzako Langileen Talde Profesionaleko lan-poltsan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 12 punturekin baloratuko dira, 4 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango

zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 3 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

4.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude kontserbatzailearen lanpostuetan, eta lehentasuna emango zaie.

II. ERANSKINA

LABORATEGIKO LAGUNTZAILEEN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Laborategiko laguntzaile lanpostu 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta hizkuntza-eskakizunik gabe.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plaza eskuratu nahi dutenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, laborategiko laguntzailearen lanpostuetan sartzeko, Analisiko eta Kalitate Kontroleko Laborategiko goi-mailako teknikari titulua eskatzen da, edo titulu horren baliokide guztiak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuak betekizun espezifiko hauek ditu:

– B gidabaimena

Aipatutako betekizuna merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira laborategiko laguntzaileen B taldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, zerbitzuok funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri,

emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko laborategiko laguntzailearen lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Tituluak, gehienez 20 puntu.

10 puntu titulu hauetako bakoitzeko: Kimika Industrialeko goi-mailako teknikaria, Laborategi Kliniko eta Biomedikoko goi-mailako teknikaria, Kimika eta Ingurumen Osasuneko goi-mailako teknikaria, Farmaziako Produktuen, Produktu Bioteknologikoen eta Antzekoen Fabrikazioko goi-mailako teknikaria, eta horien baliokideak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

c.2) Gehienez 24 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko Eskalako lan-kontratudun finko edo karrerako funtzionario izateko 2000. urteaz geroztik (urte hori barne) egin diren hautaprobak gaindituta izateagatik:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

– 1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

4.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko aipatutako artikuluan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta laborategiko laguntzailearen lanpostuetan.

III. ERANSKINA

KAIZAINBURUEN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Kaizainburu lanpostu 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 2. hizkuntza eskakizuna nahitaezkoa duela.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plaza eskuratu nahi dutenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, titulu hauetakoren bat eskatzen da kaizainburuaren lanpostuetan sartzeko:

– Administrazio eta Finantzetako goi-mailako teknikaria.

– Eraikuntza Obrak Antolatzeko eta Kontrolatzeko goi-mailako teknikaria.

– Eraikuntza Proiektuetako goi-mailako teknikaria.

– Obra Zibileko Proiektuetako goi-mailako teknikaria.

– Instalazio Termiko eta Fluidodunak Mantentzeko goi-mailako teknikaria.

– Mekatronika Industrialeko goi-mailako teknikaria.

– Sistema elektroteknikoetako eta automatizatuetako goi-mailako teknikaria.

– Itsas Garraioko eta Alturako Arrantzako goi-mailako teknikaria.

– Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeko goi-mailako teknikaria.

– Mantentze Lan Elektronikoetako goi-mailako teknikaria.

– Automatizazioko eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknikaria.

– Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi-mailako teknikaria.

– Administrazio Kudeaketako teknikaria.

– Barnealde, Dekorazio eta Birgaitze Obretako teknikaria.

– Eraikuntzako teknikaria.

– Mantentze Lan Elektromekanikoetako teknikaria.

– Beroa Sortzeko Instalazioetako teknikaria.

– Hozteko eta Girotzeko Instalazioetako teknikaria.

– Itsasertzeko Nabigazioko eta Arrantzako teknikaria.

– Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zaintzeko eta Kontrolatzeko teknikaria.

– Instalazio Elektriko eta Automatikoetako teknikaria.

– Telekomunikazio-instalazioetako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

3.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 21. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

3.2.– Lehiaketa-fasea.

Baremo honen arabera lortutako puntuen batuketak emango du lehiaketa-faseko kalifikazioa:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Apartatu bakoitzeko zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 25 urteetako lanaldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

Esperientziagatik gehienez 62 puntu emango dira, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira kaizainen B taldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, zerbitzuok funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 22 puntu emango dira.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko kaizainburuaren lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 40 puntu emango dira.

b) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Tituluak, sartzeko alegatutakoez bestelakoak, gehienez 10 puntu.

– 5 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko:

– Administrazio eta Finantzetako goi-mailako teknikaria.

– Eraikuntza Obrak Antolatzeko eta Kontrolatzeko goi-mailako teknikaria.

– Eraikuntza Proiektuetako goi-mailako teknikaria.

– Obra Zibileko Proiektuetako goi-mailako teknikaria.

– Instalazio Termiko eta Fluidodunak Mantentzeko goi-mailako teknikaria.

– Mekatronika Industrialeko goi-mailako teknikaria.

– Sistema elektroteknikoetako eta automatizatuetako goi-mailako teknikaria.

– Itsas Garraioko eta Alturako Arrantzako goi-mailako teknikaria.

– Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeko goi-mailako teknikaria.

– Mantentze Lan Elektronikoetako goi-mailako teknikaria.

– Automatizazioko eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknikaria.

– Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi-mailako teknikaria.

– Administrazio Kudeaketako teknikaria.

– Barnealde, Dekorazio eta Birgaitze Obretako teknikaria.

– Eraikuntzako teknikaria.

– Mantentze Lan Elektromekanikoetako teknikaria.

– Beroa Sortzeko Instalazioetako teknikaria.

– Hozteko eta Girotzeko Instalazioetako teknikaria.

– Itsasertzeko Nabigazioko eta Arrantzako teknikaria.

– Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zaintzeko eta Kontrolatzeko teknikaria.

– Instalazio Elektriko eta Automatikoetako teknikaria.

– Telekomunikazio-instalazioetako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

b.2) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kaizainen edo Administrarien Eskalako lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 3 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

4.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude kaizainburuaren lanpostuetan, eta lehentasuna emango zaie.

5.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Portuko erosketen eta horniduren arloko oinarrizko terminologia: biltegia, albarana, eskaera, inbentarioa, inbentarioaren altak eta bajak, fakturazioa eta stockak. Portuko hornidura-katearen kudeaketarekin lotzen diren oinarrizko prozesuak eta dokumentuak.

2.– Portu-erakundearen sistema elektriko eta mekanikoak kontserbatzea eta mantentzea. Mantentze-lanekin lotzen diren teknikak. Mantentze-lanetan erabili ohi diren tresnak eta erremintak. Kontzeptua eta mantentze motak: Prebentiboa, zuzentzailea eta prediktiboa. Portuko instalazioen mantentze mekanikoa eta orokorra.

3.– Nabigazioan laguntzeko sistemak. Seinaleztapen-tresneria (linternak eta lanparak, soinu-sirena elektronikoak, olatuen bidez aktibatutako soinu-seinaleak, eguneko seinaleak, material islatzailea eta tope-markak). Elikatze-sistemak (fotovoltaikoa, eguzki-panel fotovoltaikoak, bateria sekundarioak eta primarioak). Balizak

4.– Portuko zerbitzu-eremuko jabari publikoaren kudeaketa. Terminologia (jabari publikoko ondasunak, portuko zerbitzu-eremua, baimenak, etab.). Administrazio-emakidak eta -baimenak portu-eremuan. Dragatze-obrak eta plan bereziak. Autonomia-erkidegoaren eskumeneko portu-eremuak.

5.– Kartak, mapak eta planoak ezagutzea. Maparen eta planoaren kontzeptua. Eskalak eta eskala motak. Ingurumen jarraipenari eta segurtasunari buruzko oinarrizko ezagutzak.

6.– Ingurumenaren oinarrizko kontzeptuak. Portuko ingurumen-legeria espezifikoa. Marpol 73/78. Ingurumen-kudeaketaren adibide praktikoak. Hondakinen kudeaketa.

7.– Salgaien, bidaiarien eta ontzien trafikoan inplikatutako erakundeak eta organismoak. Portu-sektorean diharduten enpresak eta erakundeak: Portuko Agintaritza. Itsas Kapitaintza. Guardia Zibila. Polizia Nazionala. Aduanak. Mugako ikuskapen-zerbitzuak. Kanpo-osasuna. SOIVRE. Portuetako enplegu-zentroak. Kargatzailea (inportatzailea-esportatzailea). Portuko Eragiketa eta Zerbitzuen Eskuliburua. Armadorea eta ontzi-ustiatzailea. Ontzien kontsignatarioak. Zamalanetako enpresa. Aduana-ordezkaria. Operadore ekonomiko baimendua. Garraio-kudeatzailea. Karga-ikuskatzailea/Surveyor. Garraio-agentea. Lurreko garraiolaria. Itsasontzien hornitzailea. Portuko terminalista. Praktikoen korporazioak.

8.– Babes zibileko oinarrizko jarraibidea, istripu larrietan substantzia arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko eta planifikatzeko. Helburua eta eremua. Definizioak.

9.– Istripu larriak aztertu eta kontrolatzea. Istripu-arriskua aztertzeko metodoak. 1254/1999 Errege Dekretua, uztailaren 16koa, substantzia arriskutsuak tartean diren istripu larriei loturiko berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituena. Betebehar orokorrak eta espezifikoak errege-dekretuaren eraginpeko industrialentzat. Istripu-kasuetan jardutea.

10.– Suteen aurka babesteko protokoloak eta baldintzak. Suteen detekzio-, alarma- eta itzaltze-instalazioak. Suteen aurkako babes-instalazioen erregelamendua. Suteen kontrako bitarteko materialen mantentze-lanen programa. Babes-ekipamenduak.

11.– Portuko zerbitzuen eta poliziaren erregelamendua. Aplikazio-eremua. Agintariak eta eskumenak. Portuko zerbitzuen eremurako sarbidea. Zerbitzu-eremutik zirkulatzea. Atrakalekuak. Salgaiak kargatu, deskargatu, gordailutu eta garraiatzea. Ezarpena eta jarduerak portuko zerbitzu-eremuan. Matxurak, kalteak eta galerak.

12.– Portuko polizien-kaizainen lanarekin lotutako prozedurak. Portuko poliziaren figura: Portuko polizia-kidegoaren eginkizun eta zerbitzu komunak. Portuko poliziari dagozkion zereginak. Sarbide-kontrolarekin lotutako segurtasun-sistemak. Arrantzaleen lonja kontrolatzea. Kontrol Zentroaren operatiba. Bide-segurtasuna: motordun ibilgailuen trafikoa eta zirkulazioa.

13.– Portuko segurtasun operatiboa. Herritarren segurtasunerako zeladore-kaizainen agintaritza-agenteen izaera. Segurtasuneko jagoleak. Landa-zaindari partikularrak (itsas arrantzazainak). Segurtasun-zerbitzuak eta -sistemak. Alarma-zentralak. Segurtasun-sailak.

## IV. ERANSKINA

## KAIZAINBURUEN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Kaizainburu lanpostu 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 2. hizkuntza eskakizuna nahitaezkoa duela.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plaza eskuratu nahi dutenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, titulu hauetakoren bat eskatzen da kaizainburuaren lanpostuetan sartzeko:

– Administrazio eta Finantzetako goi-mailako teknikaria.

– Eraikuntza Obrak Antolatzeko eta Kontrolatzeko goi-mailako teknikaria.

– Eraikuntza Proiektuetako goi-mailako teknikaria.

– Obra Zibileko Proiektuetako goi-mailako teknikaria.

– Instalazio Termiko eta Fluidodunak Mantentzeko goi-mailako teknikaria.

– Mekatronika Industrialeko goi-mailako teknikaria.

– Sistema elektroteknikoetako eta automatizatuetako goi-mailako teknikaria.

– Itsas Garraioko eta Alturako Arrantzako goi-mailako teknikaria.

– Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeko goi-mailako teknikaria.

– Mantentze Lan Elektronikoetako goi-mailako teknikaria.

– Automatizazioko eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknikaria.

– Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi-mailako teknikaria.

– Administrazio Kudeaketako teknikaria.

– Barnealde, Dekorazio eta Birgaitze Obretako teknikaria.

– Eraikuntzako teknikaria.

– Mantentze Lan Elektromekanikoetako teknikaria.

– Beroa Sortzeko Instalazioetako teknikaria.

– Hozteko eta Girotzeko Instalazioetako teknikaria.

– Itsasertzeko Nabigazioko eta Arrantzako teknikaria.

– Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zaintzeko eta Kontrolatzeko teknikaria.

– Instalazio Elektriko eta Automatikoetako teknikaria.

– Telekomunikazio-instalazioetako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira kaizainen B taldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, zerbitzuok funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko kaizainburuaren lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Tituluak, sartzeko alegatutakoez bestelakoak, gehienez 20 puntu.

– 10 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko:

– Administrazio eta Finantzetako goi-mailako teknikaria.

– Eraikuntza Obrak Antolatzeko eta Kontrolatzeko goi-mailako teknikaria.

– Eraikuntza Proiektuetako goi-mailako teknikaria.

– Obra Zibileko Proiektuetako goi-mailako teknikaria.

– Instalazio Termiko eta Fluidodunak Mantentzeko goi-mailako teknikaria.

– Mekatronika Industrialeko goi-mailako teknikaria.

– Sistema elektroteknikoetako eta automatizatuetako goi-mailako teknikaria.

– Itsas Garraioko eta Alturako Arrantzako goi-mailako teknikaria.

– Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeko goi-mailako teknikaria.

– Mantentze Lan Elektronikoetako goi-mailako teknikaria.

– Automatizazioko eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknikaria.

– Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi-mailako teknikaria.

– Administrazio Kudeaketako teknikaria.

– Barnealde, Dekorazio eta Birgaitze Obretako teknikaria.

– Eraikuntzako teknikaria.

– Mantentze Lan Elektromekanikoetako teknikaria.

– Beroa Sortzeko Instalazioetako teknikaria.

– Hozteko eta Girotzeko Instalazioetako teknikaria.

– Itsasertzeko Nabigazioko eta Arrantzako teknikaria.

– Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zaintzeko eta Kontrolatzeko teknikaria.

– Instalazio Elektriko eta Automatikoetako teknikaria.

– Telekomunikazio-instalazioetako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kaizainen edo Administrarien Eskalako lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

4.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude kaizainburuaren lanpostuetan, eta lehentasuna emango zaie.

## V. ERANSKINA

## KAIZAINEN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Kaizain lanpostu 2 eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 2. hizkuntza eskakizuna nahitaezkoa dutela.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 11,72 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, titulu hauetakoren bat eskatzen da kaizainaren lanpostuetan sartzeko:

– Administrazio Kudeaketako teknikaria.

– Barnealde, Dekorazio eta Birgaitze Obretako teknikaria.

– Eraikuntzako teknikaria.

– Mantentze Lan Elektromekanikoetako teknikaria.

– Beroa Sortzeko Instalazioetako teknikaria.

– Hozteko eta Girotzeko Instalazioetako teknikaria.

– Itsasertzeko Nabigazioko eta Arrantzako teknikaria.

– Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zaintzeko eta Kontrolatzeko teknikaria

– Instalazio Elektriko eta Automatikoetako teknikaria.

– Telekomunikazio-instalazioetako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira kaizainen C1 azpitaldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, zerbitzuok funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko kaizainaren lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Tituluak, sartzeko alegatutakoez bestelakoak, gehienez 20 puntu.

– 10 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko:

– Administrazio Kudeaketako teknikaria.

– Barnealde, Dekorazio eta Birgaitze Obretako teknikaria.

– Eraikuntzako teknikaria.

– Mantentze Lan Elektromekanikoetako teknikaria.

– Beroa Sortzeko Instalazioetako teknikaria.

– Hozteko eta Girotzeko Instalazioetako teknikaria.

– Itsasertzeko Nabigazioko eta Arrantzako teknikaria.

– Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zaintzeko eta Kontrolatzeko teknikaria

– Instalazio Elektriko eta Automatikoetako teknikaria.

– Telekomunikazio-instalazioetako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

– 5 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko:

– Administrazio eta Finantzetako goi-mailako teknikaria.

– Eraikuntza Obrak Antolatzeko eta Kontrolatzeko goi-mailako teknikaria.

– Eraikuntza Proiektuetako goi-mailako teknikaria.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango

zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 3 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

4.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko aipatutako artikuluan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta peritu judizialaren lanpostuetan.

5.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Perituaren figura Bulego Judizialean. Peritu-jardunari buruzko oinarrizko legeria. Peritu judizialaren eginkizunak. Peritu judizialen eskubideak eta betebeharrak.

2.– Peritu-froga. Kontzeptua. Peritu-txostena: ezaugarriak eta atalak.

3.– Justizia Administrazioa Euskal Autonomia Erkidegoan: Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren eta probintzia-auzitegien antolaketa eta eskumena. Hauen antolaketa eta eskumena: lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak, zigor-arloko epaitegiak, administrazioarekiko auzien epaitegiak, lan-arloko epaitegiak, espetxe-zaintzako epaitegiak, adingabeen epaitegiak, merkataritza-arloko epaitegiak eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak.

4.– Prozedura penalak Prozedura Kriminalaren Legean: prozedura arrunta; prozedura laburtua; epaimahaiaren prozedura. Delitu arinei buruzko judizioak; Delitu arinei buruzko berehalako judizioak; Judizio azkarrak; Betearazpena prozesu penalean. Erantzukizun zibileko pieza prozesu penalean.

5.– Ondasun higiezinen kontzeptua eta motak. Balorazio-prozesu orokorra. Balioaren esanahi desberdinak. Balio justua. Gainbalioa.

6.– Eragin-balioa: kontzeptua, esanahia eta bilaketa-metodoa. Higiezinen amortizazio eta balio-galera motak: balioaren koefiziente zuzentzaileak. Zortasunak.

7.– Hiri-eraikinen balorazioa: balorazio sintetikoa edo balioaren zenbatespena eta balorazio analitikoa. Finka aurrituen balorazioa. Balio justua. Mehelina jabekidetza gisa.

8.– Landa-finken balorazioa: nekazaritza-finka baten balio erreala zehazten duten aldagaiak. Edafologiako oinarrizko ezagutzak. Nahitaezko desjabetzea. Zortasunak.

9.– Hirigintza-balorazioa: hasierako balioa eta hirigintza-balioa. Lurzoruaren jabetzaren hirigintza-araubidea, hirigintza-balorazioak, desjabetzeak eta kalte-ordainak emateko kasuak. Mugatzeak.

10.– Eskubideen balorazioa: azalera-eskubidea. Lurgain-eskubidea, usufruktuak, administrazio-

emakidak, jabetza soila, erabilera eta habitatzea, eta finantza-errentamendua, erosteko aukerarekin (leasing). Negozio baten eskualdatzearen balorazioa. Interdiktuak. Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak.

11.– Ondasun higigarriak: kontzeptua eta motak.

12.– Objektua baloratzea: objektuaren deskribapenak, informazioa biltzea eta honako hauek aplikatzea: balio-galera, amortizazioa, merkatuko prezioak, zaharkitzea, bizitza baliagarria. Kalteen tasazioa versus objektuaren tasazioa.

13.– Honako hauen definizioa eta bereizketa: balio erreala, berritako balioa, hondar-balioa, berrezarpen-balioa, kontabilitate-balioa, objektuaren prezioa. Horiek zehaztea.

14.– Balio judizialak. Enbargoak eta enkanteak. Fakturak egiaztatzea, erkatzea eta tresnen zerrendaren lekukotza egitea.

15.– Markak faltsutzea eta imitatzea. Haien prezioak merkatuan. Hauek arteko desberdintasuna: dekorazio-objektuak, antzinako gauzak eta artelanak. Bitxiak eta imitaziozko bitxiak. Makineria eta ekipo elektronikoak baloratzea. Bizitza baliagarria. Baloratzeko kontuan hartu beharreko kontzeptuak eta ezaugarriak.

16.– Bitxi baten balorazioa. Baloratzeko kontuan hartu beharreko faktoreak.

17. Metal preziatuak. Urrea (propietateak, legeak eta aleazioak). Zilarra (propietateak, legeak eta aleazioak). Platinoa (propietateak, legeak eta aleazioak). Bitxigintzan erabiltzen diren beste metal batzuk: platinoaren taldeko metalak: paladioa eta errodioa.

18.– Harribitxiak: diamantea, errubia, zafiroa eta esmeralda. Kontzeptu orokorrak: hiru taldeen ezaugarriak: diamantea, beriloa (esmeralda eta korindoia (errubia eta zafiroa). Inklusioak. Tratamenduak. Produktu sintetikoak eta gema horien imitazio ohikoenak. Diamantea. Taillatze-motak. Diamantea baloratzeko irizpideak. Esmeralda. Taillatze-motak. Esmeraldak baloratzeko irizpideak. Errubia eta zafiroa. Taillatze-motak. Baloratzeko irizpideak.

19.– Harri erdibitxiak: akuamarina, topazioa, granatea, turmalina turkesa, lapis lazulia, kuartzoaren taldea (ametista, zitrinoa), kaltzedonia (krisoprasa, agata, onizea). Ezaugarri orokorrak.

20.– Jatorri organikoko perlak eta harriak. Landutako perlak. Baloratzeko kontuan hartu beharreko faktoreak. Imitaziozko perlak. Korala. Anbarra eta marfila.

21.– Imitaziozko bitxigintza. Kontzeptu orokorrak. Imitaziozko bitxigintzan erabiltzen diren metalak. Txapatu-motak.

22.– Motor-motak: elektrikoa, gasolina eta diesela. Haien ezaugarriak.

23.– Ibilgailuaren identifikazioa peritu-txostena egiteko. Identifikazio-plaka. «Vin»aren esanahia, egitura eta ezaugarriak: «wmi», «vds» eta «vis». Eraikitzailearen plaka.

24.– Ibilgailuaren balorazioa. Haren salmenta-balioa eta erabilera-balioa. Bizitza baliagarriaren amaiera.

25.– Kalteen peritazio-sistemak.

26.– Ibilgailu baten karrozeria: haren zatiak, konponketa eta aldaketak. Ibilgailua pintatzeko prozesua.

27.– Ibilgailua bankada bidez konpontzea: haren oinarriak.

28.– Direkzioa, esekidura, balaztak eta pneumatikoak: ezaugarriak, anomalien diagnostikoa eta konponketa-eragiketak.

29.– Enbragea eta abiadura-kaxa: ezaugarriak, anomalien diagnostikoa eta konponketa-eragiketak.

30.– Errekuntza-motorra duen ibilgailuaren elektrizitatea: abioa eta piztea. Matxurak eta konponketa.

XII. ERANSKINA

PERITU JUDIZIALEN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Peritu judizialaren 3 lanpostu eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 3. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa dutela.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, edozein gradu, lizentzia edo diploma titulu eskatzen da peritu judizialaren lanpostuetan sartzeko.

3.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira peritu judizialen A taldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, zerbitzuok funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko peritu judizialaren lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) 10 puntu emango dira ikasketa-eremu guztietako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, arkitektura, diploma, ingeniaritza teknikoa eta arkitektura teknikoa), sartzeko alegatutako tituluaz bestelakoa, eta gehienez 20 lor daitezke.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako peritu judizialen lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-

titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

4.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko aipatutako artikuluan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta peritu judizialaren lanpostuetan.

XIII. ERANSKINA

EJ-KO ADMINISTRAZIOKO KORPORAZIO-SAREA KUDEATU ETA MANTENTZEKO ARDURADUNEN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

EJko administrazioko korporazio-sarea kudeatu eta mantentzeko arduradunaren lanpostu 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 2. hizkuntza eskakizuna nahitaezkoa duela.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plaza eskuratu nahi dutenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hauek dira EJko administrazioko korporazio-sarea kudeatu eta mantentzeko arduradunaren lanpostura sartzeko eskatzen diren tituluak: Telekomunikazioetako Goi Mailako Ingeniaritza, Telekomunikazio Ingeniaritzako Masterra, Informatikako Ingeniaritza eta Informatikako Gradua.

3.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira informatikako teknikarien edo telekomunikazioetako teknikarien A1 azpitaldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, zerbitzuok funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko EJko administrazioko korporazio-sarea kudeatu eta mantentzeko arduradun-lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, diploma eta ingeniaritza teknikoa), sartzeko alegatutako tituluaz bestelakoa, gehienez 20 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 061201 | Datu-baseen diseinua eta administrazioa |
| 061301 | Softwarearen eta aplikazioen garapena |
| 061304 | Adimen artifiziala |
| 061901 | Informatika |
| 071401 | Konputagailuen ingeniaritza |
| 071403 | Telekomunikazio ingeniaritza |
| 071402 | Soinuaren eta irudiaren ingeniaritza |
| 071405 | Ingeniaritza elektronikoa |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) Gehienez 24 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoan –Informatikaria– lan-kontratudun finko edo karrerako funtzionario izateko 2000. urteaz geroztik (urte hori barne) egin diren hautaprobak gaindituta izateagatik:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Informazio Sistemetako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

4.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude EJko administrazioko korporazio-sarea kudeatu eta mantentzeko arduradun lanpostuetan, eta lehentasuna emango zaie.

XIV. ERANSKINA

MANTENTZE-LANETAKO ARDURADUNEN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Mantentze-lanetako arduradunen 2 lanpostu eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, eta honela banatuta:

1. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, mantentze-lanetako arduradun-lanpostura sartzeko, titulu hauetakoren bat eskatzen da: Instalazio Termiko eta Fluidodunak Mantentzeko goi-mailako teknikaria, Mekatronika Industrialeko goi-mailako teknikaria eta Sistema elektroteknikoetako eta automatizatuetako goi-mailako teknikaria, edo titulu horien baliokide guztiak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuek betekizun espezifiko hauek izan ahal dituzte:

– Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluaren arabera.

Aipatutako betekizunak merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar dira.

Eskainitako lanpostuen zerrendan –oinarri orokorren 12.2 apartatuan egiten zaio erreferentzia–, honako hauek zehazten dira: zein den lanpostu bakoitzaren izena, saila edo erakundea eta zentro organikoa, zein herritan dagoen kokatuta, zer ordainsari-maila, hizkuntza-eskakizun eta derrigortasun-data dituen, eta zer betekizun espezifiko bete behar diren lanpostua betetzeko.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira instalazio eta mantentze-lanen lanbide-arloko goi-mailako teknikariaren lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, zerbitzuok funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko mantentze-lanetako arduradun-lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Tituluak, sartzeko alegatutakoez bestelakoak, gehienez 20 puntu.

– 10 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko:

– Instalazio Termiko eta Fluidodunak Mantentzeko goi-mailako teknikaria.

– Mekatronika Industrialeko goi-mailako teknikaria.

– Sistema elektroteknikoetako eta automatizatuetako goi-mailako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

– 5 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko:

Mantentze Lan Elektronikoetako goi-mailako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Mantentze-lanetako teknikarien lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude mantentze-lanetako arduradun-lanpostuetan, eta lehentasuna emango zaie.

XV. ERANSKINA

HISTOPATOLOGIAKO TEKNIKARIEN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Histopatologiako teknikarien 4 lanpostu eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, eta honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 3

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, Histopatologiako teknikarien lanpostuetan sartzeko, Anatomia Patologikoko eta Zitodiagnosiko goi-mailako teknikariaren titulua eskatzen da, edo titulu horren baliokideak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira Anatomia Patologikoko eta Zitodiagnosiko goi-mailako teknikariaren lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, zerbitzuok funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko Histopatologiako teknikari-lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1.) 10 puntu titulu bakoitzeko, sartzeko alegatutako tituluaz bestelakoa; gehienez 20 puntu emango dira:

– Laborategi Klinikoko eta Biomedikoko goi-mailako teknikaria.

Aukera: Analisiko eta kalitate kontroleko laborategiko goi-mailako teknikaria

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Histopatologiako teknikarien lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

– 1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

– 2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

– 3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

4.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko aipatutako artikuluan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Histopatologiako teknikarien lanpostuetan.

XVI. ERANSKINA

LABORATEGIKO TEKNIKARIEN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Laborategiko teknikarien 3 lanpostu eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta hizkuntza-eskakizunik gabe.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, Laborategiko teknikariaren lanpostuetan sartzeko, Laborategi Kliniko eta Biomedikoko goi-mailako teknikariaren titulua eskatzen da, edo titulu horren baliokideak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira laborategiko teknikarien C1 azpitaldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, zerbitzuok funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko Laborategiko teknikari-lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1.) 10 puntu titulu bakoitzeko, sartzeko alegatutako tituluaz bestelakoa; gehienez 20 puntu emango dira:

– Kimika Industrialeko goi-mailako teknikaria.

– Analisiko eta Kalitate Kontroleko Laborategiko goi-mailako teknikaria.

– Kimikako eta Ingurumen Osasuneko goi-mailako teknikaria.

– Produktu Farmazeutikoak, Bioteknologikoak eta Antzekoak Fabrikatzeko goi-mailako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

c.2) Gehienez 24 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko eta haren organismo autonomoetako Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskalako lan-kontratudun finko edo karrerako funtzionario izateko 2000. urteaz geroztik (urte hori barne) egin diren hautaprobak gaindituta izateagatik:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

– 1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

– 2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

– 3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

4.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko aipatutako artikuluan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Laborategiko teknikariaren lanpostuetan.

XVII. ERANSKINA

LABORATEGIKO TEKNIKARI FAKULTATIBOEN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Laborategiko teknikari fakultatiboen 2 lanpostu eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta hizkuntza-eskakizunik gabe.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, Laborategiko teknikari fakultatiboaren lanpostuetan sartzeko, titulu hauek eskatzen dira: Farmaziako lizentzia edo gradua eta Kimikako lizentzia edo gradua.

3.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira laborategiko teknikarien A1 azpitaldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, zerbitzuok funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko Laborategiko teknikari fakultatiboaren lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa

izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, diploma eta ingeniaritza teknikoa), sartzeko alegatutako tituluaz bestelakoa, gehienez 20 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 091301 | Erizaintza |
| 091601 | Farmazia |
| 051901 | Biomedikuntza |
| 051202 | Bioteknologia |
| 071101 | Industria kimikaren ingeniaritza |
| 091201 | Medikuntza |
| 091401 | Ingeniaritza biomedikoa eta osasunekoa |
| 084101 | Albaitaritza |
| 053101 | Kimika |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) Gehienez 24 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoan –Laborategiko fakultatibo espezialista– lan-kontratudun finko edo karrerako funtzionario izateko 2000. urteaz geroztik (urte hori barne) egin diren hautaprobak gaindituta izateagatik:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

– 1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

– 2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

– 3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

– 4. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

4.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko aipatutako artikuluan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Laborategiko teknikari fakultatiboaren lanpostuetan.

XVIII. ERANSKINA

MANTENTZE-LANETAKO TEKNIKARIEN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Mantentze-lanetako teknikarien 5 lanpostu eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, eta honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 3

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, mantentze-lanetako teknikari-lanpostura sartzeko, titulu hauetakoren bat eskatzen da: Instalazio Termiko eta Fluidodunak Mantentzeko goi-mailako teknikaria, Mekatronika Industrialeko goi-mailako teknikaria eta Sistema elektroteknikoetako eta automatizatuetako goi-mailako teknikaria eta Mantentze Lan Elektronikoetako goi-mailako teknikaria, edo titulu horien baliokide guztiak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuek betekizun espezifiko hauek izan ahal dituzte:

– Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluaren arabera.

Aipatutako betekizunak merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar dira.

Eskainitako lanpostuen zerrendan –oinarri orokorren 12.2 apartatuan egiten zaio erreferentzia–, honako hauek zehazten dira: zein den lanpostu bakoitzaren izena, saila edo erakundea eta zentro organikoa, zein herritan dagoen kokatuta, zer ordainsari-maila, hizkuntza-eskakizun eta derrigortasun-data dituen, eta zer betekizun espezifiko bete behar diren lanpostua betetzeko.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 21. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Baremo honen arabera lortutako puntuen batuketak emango du lehiaketa-faseko kalifikazioa:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Apartatu bakoitzeko zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 25 urteetako lanaldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

Esperientziagatik gehienez 62 puntu emango dira, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira instalazio eta mantentze-lanen lanbide-arloko goi-mailako teknikariaren lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, zerbitzuok funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 22 puntu emango dira.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko Mantentze-lanetako teknikari-lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 40 puntu emango dira.

b) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) 5 puntu titulu bakoitzeko, sartzeko alegatutako tituluaz bestelakoa, gehienez 10 puntu izan arte:

– 5 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko:

– Instalazio Termiko eta Fluidodunak Mantentzeko goi-mailako teknikaria.

– Mekatronika Industrialeko goi-mailako teknikaria.

– Sistema elektroteknikoetako eta automatizatuetako goi-mailako teknikaria.

– Mantentze Lan Elektronikoetako goi-mailako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

b.2) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Mantentze-lanetako teknikarien lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 3 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

– 1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

– 2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude mantentze-lanetako teknikari-lanpostuetan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Behe-tentsiorako erregelamendu elektroteknikoa. Jendearentzat zabalik dauden lokaletako instalazioak (ITC-BT-28).

2.– Administrazio-eraikin baten elementu elektriko nagusiak: Eraikineko hargunea, transformazio-zentroa, kontagailuak, sareko tentsioa eteteko etengailua, banaketa-koadro nagusia, bigarren mailako banaketa-koadroa, oinplanokoa, eroale motak, sekzio-kalkulua, babesak, etengailu automatikoak eta diferentzialak, lur-hargunea, kondentsadore-bateria, banaketa.

3.– UPS. Instalazioan integratzea, unitatearen zatiak.

4.– Multzo elektrogenoa. Instalazioan integratzea, unitatearen zatiak.

5.– Datuen sarea. Switch, kableatu mota eta Rj45 harguneak.

6.– Suteen aurkako babes-instalazioen erregelamendua. I. ERANSKINA Suteen aurka babesteko ekipoen eta sistemen ezaugarriak eta instalazioa: Seinaleztapena, su-itzalgailuak, suteetako ur-hargune hornituak, suteetarako presio-ekipamendua, alarma-txirrina, telefonogunea, detektagailuak eta modulu eragingailuak.

7.– Oinarrizko iturgintza. Hargunea, kontagailua eta ebaketa-giltza nagusia; banaketa, hodi-motak, presio-erregulagailuak; aparatu sanitarioak, zamalanetarako elementuak; hondakin-urak hustea eta sifoiak; euri-urak hustea; eta koipe-bereizgailuak.

8.– Sarbideen kontrola. Tornuak, morroilo elektrikodun ateak, sarrera-kontroleko irakurgailuak.

9.– Klimatizazioa. Galdaren oinarrizko nozioak, hozte-multzoak, bero-ponpak, aireztapena bero-berreskuratzaileekin, klimatizagailuak, fancoilak, aire-iragazkien aldaketa, bero-trukagailua, birzirkulazio-ponpa, nahaste-balbula, betetze-balbula, purgagailu automatikoa, erradiadoreak, kondentsatuen hustubidea.

## XIX. ERANSKINA

## MANTENTZE-LANETAKO TEKNIKARIEN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Mantentze-lanetako teknikarien 8 lanpostu eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, eta honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 2

1. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 5

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, mantentze-lanetako teknikari-lanpostura sartzeko, titulu hauetakoren bat eskatzen da: Instalazio Termiko eta Fluidodunak Mantentzeko goi-mailako teknikaria, Mekatronika Industrialeko goi-mailako teknikaria eta Sistema elektroteknikoetako eta automatizatuetako goi-mailako teknikaria eta Mantentze Lan Elektronikoetako goi-mailako teknikaria, edo titulu horien baliokide guztiak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuek betekizun espezifiko hauek izan ahal dituzte:

– Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluaren arabera.

Aipatutako betekizunak merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar dira.

Eskainitako lanpostuen zerrendan –oinarri orokorren 12.2 apartatuan egiten zaio erreferentzia–, honako hauek zehazten dira: zein den lanpostu bakoitzaren izena, saila edo erakundea eta zentro organikoa, zein herritan dagoen kokatuta, zer ordainsari-maila, hizkuntza-eskakizun eta derrigortasun-data dituen, eta zer betekizun espezifiko bete behar diren lanpostua betetzeko.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira instalazio eta mantentze-lanen lanbide-arloko goi-mailako

teknikariaren lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, zerbitzuok funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko Mantentze-lanetako teknikari-lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Tituluak, sartzeko alegatutakoez bestelakoak, gehienez 20 puntu.

– 10 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko:

– Instalazio Termiko eta Fluidodunak Mantentzeko goi-mailako teknikaria.

– Mekatronika Industrialeko goi-mailako teknikaria.

– Sistema elektroteknikoetako eta automatizatuetako goi-mailako teknikaria.

– Mantentze Lan Elektronikoetako goi-mailako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Mantentze-lanetako teknikarien lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

– 1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

– 2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude mantentze-lanetako teknikari-lanpostuetan, eta lehentasuna emango zaie.

XX. ERANSKINA

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ORGANO TEKNIKO LAGUNTZAILEETAKO GIZARTE-LANGILEAREN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langilearen plaza 1 eskaintzen da txanda irekian (Lantalde Psikosozial Judizialak eta Osoko Balorazio Forentseko Unitateak), sarbide orokorreko modalitatean eta 3. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duela.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plaza eskuratu nahi dutenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hauek dira gizarte-langilearen lanpostuetan sartzeko tituluak: Gizarte Laneko gradua eta Gizarte Laneko/Gizarte Laguntzailearen diploma.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuak betekizun espezifiko hau du:

– Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluaren arabera.

Aipatutako betekizuna merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan –oinarri orokorren 12.2 apartatuan egiten zaio erreferentzia–, honako hauek zehazten dira: zein den lanpostu bakoitzaren izena, saila edo erakundea eta zentro organikoa, zein herritan dagoen kokatuta, zer ordainsari-maila, hizkuntza-eskakizun eta derrigortasun-data dituen, eta zer betekizun espezifiko bete behar diren lanpostua betetzeko.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 21. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Baremo honen arabera lortutako puntuen batuketak emango du lehiaketa-faseko kalifikazioa:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Apartatu bakoitzeko zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 25 urteetako lanaldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik

beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

Esperientziagatik gehienez 62 puntu emango dira, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne direla–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikotan, Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langilearen lanpostuetan emandako zerbitzuak (Lantalde Psikosozial Judizialak eta Osoko Balorazio Forentseko Unitateak), funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 22 puntu emango dira.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langilearen lanpostuetan (Lantalde Psikosozial Judizialak eta Osoko Balorazio Forentseko Unitateak).

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 40 puntu emango dira.

b) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (lizentzia, gradua eta diploma), sartzeko alegatutako tituluaz bestelakoa, gehienez 10 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 031301 | Psikologia |
| 011101 | Pedagogia |
| 011201 | Haur-hezkuntza |
| 011301 | Lehen-hezkuntza |
| 011401 | Beste maisu-maistra batzuk |
| 011901 | Gizarte-hezkuntza |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

b.2) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langileen lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 3 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko aipatutako artikuluan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langilearen lanpostuetan.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Justizia Administrazioaren antolamendu orokorra: Epaitegiak eta auzitegiak. Lurralde- eta funtzio-banaketa.

2.– Epaitegi espezializatuak: familia-epaitegiak, adingabeen epaitegiak eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak; aipatutakoen ardurapeko gaiak eta eskumenak.

3.– Teoria forentsea gizarte-lanean.

4.– Familia-epaitegiak. Ezkontza eta adingabeak. Ezkontza-prozesuak. Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak. Guraso-ahala azkentzea. Guraso-ahala erabiltzeko eskubidea kentzeko kausak. Indarkeria, guraso-ahala kentzeko kausa gisa.

5.– Auzitegiko gizarte-langileen eginkizunak EAEko Lantalde Psikosozialetan, genero-indarkeriaren arlo zibileko eta familiako epaitegietan: Seme-alaben zaintza. Zaintza partekatua. Familiarentzako elkarguneak. Seme-alabekin komunikatzeko eskubidea. Genero-indarkeriaren arloko neurri zibilak.

6.– Familiako esku-hartze sozialeko peritu-eredua. Erabaki beharreko zaintza ebaluatzeko eta seme-alabekin komunikatzeko eskubidea ebaluatzeko gizarte-lanaren tresnak eta teknikak, eta diziplinaren berezko irizpideak eta teknikak.

7.– Adingabearen babes juridikoa: Auzitegiko gizarte-langilearen eginkizunak familia-epaitegietan adingabeak babesteko. Adingabeen eskubidea. Babesgabezia eta tutoretza, adopzioa, harrera eta adingabeak babesteko beste modu batzuk. Adingabeen babesaren arloko administrazio-ebazpenen aurka egitea.

8.– Adingabearen babes juridikoa. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko esparru juridikoa: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa (III. eta IV. tituluak). 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena. (1. kapitulua: 2. eta 4. artikuluak; eta 4. kapitulua: 25. eta 26. artikuluak).

9.– Auzitegiko gizarte-lanaren zeregina desgaitasun fisiko, psikiko edo intelektuala duten pertsonekin. 8/2021 Legea, ekainaren 2koa, zeinaren bidez legeria zibila eta prozesala erreformatzen baitira desgaitasuna duten pertsonei gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko (42. artikulua). Peritu-txosten soziala.

10.– Gizarte-langileen eginkizunak Auzitegi Medikuntzako Institutuetan. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa. Gizarte-langileen zeregina helduen zigor-arloko jurisdikzioan: Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria, sexu-indarkeria adingabeengan eta helduengan.

11.– Auzitegi Medikuntzako Institutuetako auzitegiko ebaluazio integraleko unitateak. Genero-indarkeriaren arloko auzitegiko gizarte-lana ebaluatzeko edukiak. Indarkeria-tipologia, arriskuaren balorazioa. Kalte soziala, lesioak eta ondorio sozialak genero-indarkerian. Familia barruko indarkeriazko giroaren ebaluazio soziala. Inputatuaren arrisku-faktore soziofamiliarrak eta arriskugarritasuna.

12.– Aldez aurretik eratutako froga. Auzitegiko gizarte-lanaren funtzioak eta garrantzia aldez aurretik eratutako frogan: haurren sexu-abusua, genero-indarkeria. 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralarena. 449. art.

13.– Inputatuaren ebaluazioa, inputatuaren arrisku-faktore soziofamiliarrak eta arriskugarritasuna. Gizarteratze-faktoreak ebaluatzea auzitegi-txostenean. Gizarteratzeko proposamenak: segurtasun-neurriak, espetxeratzearen ordezko neurriak, zigorraren betearazpena etetea.

14.– Gizarte-lana adingabeen zigor-arloko jurisdikzioan. Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko 5/2000 Lege Organikoa eta haren aldaketak: Gazteen Zigor Legean jasotako neurri judizialak. Lege hori garatzen duen erregelamendua: Prozeduraren instrukzioa. Zigor-arloko adinaren gehiengoa eta gutxiengoa.

15.– Gizarte-langilearen eginkizunak adingabeen epaitegietako lantalde teknikoko kide gisa. Entzunaldia. Lantalde teknikoaren esku-hartzea prozedura judizialaren fase bakoitzean.

16.– 5/2000 Legeak Lantalde Teknikoko gizarte-langileari emandako garrantzia, eginkizunak eta

eskumena. Adiskidetzea, erreparazioa eta bitartekaritza Adingabeen Justiziaren eremuan.

17.– Kautelazko neurriak Gazteen Zigor Legean. Neurri judizialen ordezko aukerak Adingabeen Justiziaren eremuan eta horien garapena. Erreforma-zentroak: horien ezaugarriak. Erregimen irekian, erdi-irekian eta itxian barneratzea. Neurri judizial horren mende dauden adingabeen eskubideak eta betebeharrak.

18.– Gizarte-laneko tresna tekniko komunak: 353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa (1-4 artikuluak) eta 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena (1-6 orrialdeak).

19.– Peritu-txostena eta txosten soziala: desberdintasunak, helburuak, edukiak, metodologia, teknikak: elkarrizketa eta etxez etxeko bisita.

20.– Gizarte-laneko kode deontologikoa.

XXI. ERANSKINA

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ORGANO TEKNIKO LAGUNTZAILEETAKO GIZARTE-LANGILEEN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langileen 9 plaza eskaintzen da txanda irekian (Lantalde Psikosozial Judizialak eta Osoko Balorazio Forentseko Unitateak), sarbide orokorreko modalitatean eta 3. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duela.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hauek dira Lantalde Psikosozial Judizialeko gizarte-langilearen lanpostuetan sartzeko tituluak: Gizarte Laneko gradua eta Gizarte Laneko/Gizarte Laguntzailearen diploma.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuek betekizun espezifiko hauek dituzte:

– Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluaren arabera.

Aipatutako betekizuna merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan –oinarri orokorren 12.2 apartatuan egiten zaio erreferentzia–, honako hauek zehazten dira: zein den lanpostu bakoitzaren izena, saila edo erakundea eta zentro organikoa, zein herritan dagoen kokatuta, zer ordainsari-maila, hizkuntza-eskakizun eta derrigortasun-data dituen, eta zer betekizun espezifiko bete behar diren lanpostua betetzeko.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne direla–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikotan, Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langilearen lanpostuetan emandako zerbitzuak (Lantalde Psikosozial Judizialak eta Osoko Balorazio Forentseko Unitateak), funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren,

hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langilearen lanpostuetan (Lantalde Psikosozial Judizialak eta Osoko Balorazio Forentseko Unitateak).

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (lizentzia, gradua eta diploma), sartzeko alegatutako tituluaz bestelakoa, gehienez 20 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 031301 | Psikologia |
| 011101 | Pedagogia |
| 011201 | Haur-hezkuntza |
| 011301 | Lehen-hezkuntza |
| 011401 | Beste maisu-maistra batzuk |
| 011901 | Gizarte-hezkuntza |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langileen lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko aipatutako artikuluan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langilearen lanpostuetan.

XXII. ERANSKINA

IBAIONDO HEZIKETA-ZENTROKO GIZARTE-LANGILEEN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Ibaiondo heziketa-zentroko gizarte-langilearen lanpostu 1 eskaintzen da txanda irekian eta hizkuntza-eskakizunik gabe.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hauek dira Ibaiondo heziketa-zentroko gizarte-langilearen lanpostuetan sartzeko tituluak: Gizarte Laneko gradua eta Gizarte Laneko/Gizarte Laguntzailearen diploma.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuak betekizun espezifiko hauek ditu:

– B gidabaimena.

– Familiako esku-hartzeari edo terapiari buruzko ezagutzak, bai esperientziaren bidez egiaztatuak, bai prestakuntza akademikoko edo ondorengoko berariazko prestakuntzaren bidez egiaztatuak.

– Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluaren arabera.

Aipatutako betekizunak merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar dira.

Eskainitako lanpostuen zerrendan –oinarri orokorren 12.2 apartatuan egiten zaio erreferentzia–, honako hauek zehazten dira: zein den lanpostu bakoitzaren izena, saila edo erakundea eta zentro organikoa, zein herritan dagoen kokatuta, zer ordainsari-maila, hizkuntza-eskakizun eta derrigortasun-data dituen, eta zer betekizun espezifiko bete behar diren lanpostua betetzeko.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikotan adingabeen zentroetako gizarte-langilearen lanpostuetan emandakoak, zerbitzuok funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanetakoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta

gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko Ibaiondo heziketa-zentroko gizarte-langilearen lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (lizentzia, gradua eta diploma), sartzeko alegatutako tituluaz bestelakoa, gehienez 20 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 031301 | Psikologia |
| 011101 | Pedagogia |
| 011201 | Haur-hezkuntza |
| 011301 | Lehen-hezkuntza |
| 011401 | Beste maisu-maistra batzuk |
| 011901 | Gizarte-hezkuntza |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) Gehienez 24 puntu emango dira lan-kontratudun finkoko gizarte-langile izateko 2000. urteaz geroztik (urte hori barne) egin diren hautaprobak gaindituta izateagatik:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Ibaiondo heziketa-zentroko gizarte-langileen lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

– 1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

– 2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

– 3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

